

OTSAILAK 16 DE FEBRERO. 20:30

EUROPA GALANTE

FABIO BIONDI

ZUZENDARIA, BIOLINA / DIRECTOR, VIOLÍN

MARINA DI LISO

KONTRALTOA / CONTRALTO

“Vivaldi” egitaraua/programa

Harietarako sinfonia, sol maiorrean | Sinfonía en sol mayor para cuerdas, RV 149,

“Il Coro delle muse”. I. *Allegro* II. *andante* III. *allegro*

“La Senna Festeggiante” serenataren sinfonia, do maiorrean | Sinfonía dalla Serenata

“La Senna Festeggiante” en do mayor I. *Allegro* II. *Andante molto* III. *Allegro molto*

Harietarako kontzertua, do maiorrean | Concierto para cuerdas en do mayor RV 116.

I. *Allegro* II. *Affettuoso* III. *Presto*
Bi biolinetarako sonata, re minorrean | Sonata para dos violines “La Follia” en re menor
Op.1 n.12 Rv63. I. *Adagio-andante-allegro* II. - *adagio – vivace- allegro-larghetto-allegro* III. *adagio-allegro*

Atsedendia | Intervalo

Kontralto eta harietarako Stabat Mater, RV 621 “Longe mala, umbrae, terrores”, RV 629 16’
Stabat Mater RV 621 para contralto y cuerdas “Longe mala, umbrae, terrores” RV 629 16’

38/38/28/21 €



FABIO BIONDI

EUROPA GALANTE. Taldearen zuzendari artistiko Fabio Biondik sortu zuen Europa Galante, 1990ean; haren asmoa zen instrumentu-talde italiar bat sortzea, erreperitorio barroko eta klasiko handia garaiko instrumentuak baliatuz interpretatzeko.

Mundu osoan kontzertu ugari ematen ditu taldeak, eta haren diskoek izugarriko arrakasta dute; hori dela kausa, nazioarteko talde ezagun eta sarrituenetako bat da.

FABIO BIONDI. Eragin dogmatikoetatik askatutako estiloaren eta jatorrizko lengoaiaren etengabeko bilaketaren sinboloa bihurtu da Fabio Biondi. Joera horrek maila goreneko orkestrekin bakarlari eta zuzendari gisa lan egitera eraman zuen: Erromako Santa Cecilia Orkestra, Halleko Opera, Züricheko Ganbera Orkestra, Norvegiako Ganbera Orkestra, Salzburgoko Mozarteumeko Orkestra, Mahler Ganbera Orkestra, eta Chicagoko Orkestra Sinfonikoa

EUROPA GALANTE fue fundada en 1990 por su director artístico, Fabio Biondi, quien quiso formar un grupo instrumental italiano para la interpretación de instrumentos de época del gran repertorio barroco y clásico.

Gracias a una actividad concertística extendida por todo el mundo y a un increíble éxito discográfico, es uno de los grupos más famosos y premiados internacionalmente.

FABIO BIONDI. Encarna hoy el símbolo de la búsqueda perpetua de un estilo libre de influencias dogmáticas e interesado en la búsqueda del lenguaje original. Esta inclinación le llevó a colaborar como solista y director de orquestas del calibre de la Orquesta Santa Cecilia de Roma, la Ópera de Halle, la Orquesta de Cámara de Zürich, la Orquesta de Cámara de Noruega, la Orquesta Mozarteum Salzburg, la Orquesta de Cámara de Mahler, y la Orquesta Sinfónica de Chicago.



EUROPA GALANTE

PROGRAMA VIVALDI

Esan daiteke XVII. mendean garatu eta sendotu zela biolinerako musika, eta mugimendu hori Italian gertatu zen funtsean. Agian, instrumentuaren beraren fabrikazioak izandako goraldiaz eta hobekuntzaz hitz egin beharko genuke lehenengo, baina aldi berean interpretazio teknika eta musika konposizioa bera nabarmen aurreratu ziren. Italiako hainbat hiri izango dira mugimendu horren epizentroan: Bresciak eta Cremonak fabrikazioaren ardatza osatuko dute, eta Bolonia bereziki interpretazioaren erdigunea bilakatuko da, Accademia Filarmonica edo San Petronio Basilikako Orkestra bezalako ekimenei esker, batez ere. Azken horretan, hain zuzen, G. B. Vitali, Domenico Gabrielli, Giovanni Bononcini, Giuseppe Torelli eta Arcangelo Corelli bera aritu ziren; haien ekarpena erabakigarria izan zen bai aipatutako goraldian bai forma barroko nagusiaren sendotzean: “concerto grosso” deritzona. XVII. mendearen amaieran eta XVIII.aren hasieran musika garapenaren gunea Boloniatik Veneziara aldatuko da. Ubideen hiriak basilika eta parroquia ugari zituen, eta horietan bizi-bizi zegoen musikaren interpretazioa; ez dezagun ahaztu bertan zirela Claudio Monteverdi, Arcangelo Gabrieli eta Giovanni Legrenzi, besteak beste. 1700. urtearen ondoren, ordea, hiriko musikaren historia ez zen eliza horietan idatziko, ezta San Marcos handitsuan ere, dagoeneko gainbeheran baitzen, baizik eta kasinoetan, antzokietan eta andereñoentzako lau babes-etxeetan, zeinak hainbat erakundek eta hiriko senatuak berak mantentzen baitzituzten. Horien artean dugu Ospedale della Pietà izenekoa, non Antonio Vivaldi veneziar gaztea —25 urte zituen— kontratatu baitzuten apaiztu eta gutxira, 1703an.

Hasiera batean, instrumentu eta kantu maisuaren lanpostua bete zuen Vivaldik, eta 1713az geroztik, baita abesbatza maisuarena ere. Lan horiek ez ziren oso interesgarriak ekonomikoki, baina konposizioan jarraitutasun benetan na-

El siglo XVII puede considerarse como el del desarrollo y consolidación de la música para violín; este movimiento tiene lugar básicamente en Italia. Tal vez deberíamos hablar primero del auge y perfeccionamiento producidos en la fabricación del propio instrumento; pero, de forma paralela, se asiste a un significativo progreso en la técnica interpretativa y en la propia composición musical. Diversas ciudades italianas se van a encontrar en el epicentro de este movimiento; así Brescia y Cremona serán los ejes de la construcción, mientras de un modo especial Bolonia se constituirá en el centro de la interpretación, sobre todo gracias a iniciativas como la Accademia Filarmonica o la Orquesta de la Basílica de San Petronio. Precisamente en esta última ejercieron su oficio músicos como G. B. Vitali, Doménico Gabrielli, Giovanni Bononcini, Giuseppe Torelli o el mismo Arcangelo Corelli; ellos contribuyeron decisivamente tanto al auge apuntado como al afianzamiento de una de las formas barrocas por excelencia, el “concerto grosso”.

El final del siglo XVII y comienzos del XVIII va a ser testigo del traslado de este centro de desarrollo musical desde Bolonia hasta Venecia. La ciudad de los canales contaba con un importante número de basílicas y parroquias en las cuales se practicaba la música con gran vitalidad; no podemos olvidar la presencia, entre otros, de compositores como Claudio Monteverdi, Arcangelo Gabrieli o Giovanni Legrenzi. Pero, poco después de 1700, su historia musical no se escribe en estas iglesias, ni siquiera en la grandiosa San Marcos, ya decadente, sino en los casinos, en los teatros y en los cuatro Hospicios para señoritas mantenidos por instituciones diversas o por el propio Senado ciudadano. En este caso se encuentra el Ospedale della Pietà, en el cual es contratado el joven veneciano Antonio Vivaldi, poco después de ordenarse sacerdote en 1703, con 25 años.

Vivaldi ocupó inicialmente la plaza de maestro de instrumento y de canto y, a partir de 1713, también la de maestro de coro. Estos trabajos, aunque no eran

barmenaz aritzeko aukera eman zioten. Andereñoen abesbatzarentzat musika sakratuko 60 partituratik gora atera ziren haren eskutik, hari instrumentuetarako eta bestetarako 400 kontzertu inguru, eta berrogeita hamar opera ere konposatu zituela uste da. Hain zuzen ere, kontzertua izan da haren talentuaren eta berritzeko ahalmenaren aitorten orokorra ekarri dion generoa, hainbestearinokoa ezen Johann Sebastian Bachek berak horietako sei teklaturako transkribatu baitzituen, hiru organorako, eta beste bat lau klabe, hari eta kontinuoarako.

Programa honek Vivaldiren katalogoaren hainbat alderditan barnerratzeko aukera ematen digu. Lehenengo zatian, instrumentu-talderako musika entzungo dugu, hari bakarlarientzako kontzertuak, opera labur baten zati den sinfonia bat eta maisu veneziarrak planteatzen dituen eskakizun teknikoak mirestea ahalbidetuko digun sonata bat. Bigarrenean, haren ahots-lan adierazgarrietakoa bat entzungo dugu, kontralto eta harietarako Stabat Mater, RV 621; lan hori ez zuen Ospedalerako idatzi, Bresciako Santa Maria della Pace elizarako baizik, hots, haren aitaren jaioterriko elizarako —Veneziako San Marcosen biolin-jotzailea zen aita—.

Alfredo Casella konpositoreak aurkitu zuen Stabat Mater hori, 1939an, eta geroztik, onespren berezia lortu du. Estilo soileko lana da, baina latinezko testuarekin bikain uztartzen den naturaltasuna eta adierazkortasuna darizkio. Vivaldik ez zuen artean esperientzia handirik operen konposizioan, baina maisuki erabiltzen ditu askotariko baliabideak zenbait hitzen esanahia azpimarratzeko, esaterako, “pendebat” hitzari laguntzen dioten beheranzko kromatismoak eta “poenas” hitzaren bokalizazio ia negartiak, besteak beste. Hori dena bitarteko ekonomia handiz egiten du, eta tempo geldo esanguratsuak erabiliz, amaierako “Amen” birtuosan salbu.

Gainera, interpretazioa hori Fabio Biondiren eskutik gozatzeko zoriona izango dugu; biolin-jotzaile italiarrak 1991n harritu egin gintuen Le Quattro Stagioniren bizitasunez eta berotasunez betetako grabazioarekin.

de gran interés económico, le permitieron dedicarse a la composición con una constancia realmente notable. De su mano fueron surgiendo más de 60 partituras de música sacra para su coro de señoritas, unos 400 conciertos para cuerda y diversos instrumentos y se cree que hasta cincuenta óperas. Es precisamente el concierto el género que ha supuesto el reconocimiento general de su talento y capacidad innovadora, hasta el punto de que el mismo Johann Sebastian Bach transcribió seis de ellos para teclado, tres para órgano y otro para cuatro claves, cuerda y continuo.

Este programa ofrece la oportunidad de adentrarnos en las diversas facetas del catálogo vivaldiano; escucharemos en la primera parte música para grupo instrumental, conciertos para solistas de cuerda, una sinfonía que forma parte de una pequeña ópera y una sonata que nos permitirá admirar las exigencias técnicas que plantea el maestro veneciano. En la segunda, una de sus obras vocales más representativas, el Stabat Mater RV 621 para contralto y cuerdas, que no fue escrito para el Ospedale sino para la iglesia de Santa Maria della Pace en Brescia, ciudad de nacimiento del padre del autor, también violinista en San Marcos de Venecia.

Este Stabat Mater fue redescubierto en 1939 por el compositor Alfredo Casella y, desde entonces, goza de singular aceptación. Se trata de una obra de estilo simple pero con una espontaneidad y expresividad perfectamente enlazada con el texto latino. Aunque Vivaldi aún no ha adquirido una gran experiencia en la composición de óperas, sabe utilizar con maestría elementos diversos para subrayar el significado de ciertas palabras; así ocurre con los cromatismos descendentes que acompañan el “pendebat” o en las vocalizaciones casi llorosas del “poenas”, entre otros ejemplos. Y todo ello dentro de una gran economía de medios y del empleo predominante de elocuentes tiempos lentos, salvo en el virtuoso “Amen” final.

La fortuna además nos va a permitir asistir a esta interpretación de la mano de Fabio Biondi, un violinista italiano que ya, en 1991, nos sorprendió al ofrecernos una grabación discográfica de Le Quattro Stagioni plenas de vitalidad y efusividad.